2001-07-26 aurkibidea

EUSKAL HERRIA 9
Lekunberriko kutxa bat zartatu du bonba batek

Ustez titadinez osatutako lehergailu batek kutxa automatiko bat zartatu zuen atzo Lekunberrin. Aurretik ETAren izenean SOS Nafarroan jasotako deiak jakinarazi zuen lehergailuak eztanda egingo zuela.

EUSKAL HERRIA 13
UEU lagundu du Oinarriak-ek

Zerga eragozpenarekin lortutako diruaren zati bat UEUri ematea erabaki du Oinarriak-ek, «25 urtez eginiko lana eskertzeko». Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udaleko agintarien «bidegabekeriak» salatu dituzte.

EKONOMIA 16
Europako ontziolak lagunduko ditu Bruselak

Ontziolak laguntzeko behin-behineko laguntza programa bat proposatu du Europako Batzordeak. Horrela, Koreako lehiari aurre egin eta Europako egoera hobetu nahi dute. Zama ontziak egiten dituzten ontziolak lagunduko dituzte batez ere.

NAZIOARTEKOA 18
Arma bakterologikoen itunaren aurka dira EEBBak

Armagintza biologikoaren inguruko neurriak ez sostengatzea erabaki du George Bushen gobernuak, atzo Genevan eginiko bileraren ondotik. Akordioak «segurtasun nazionala eta informazio sekretua» arriskuan jarriko lukeela argudiatu du.

KIROLA 25
Clinger Ordizian irabazle

Festina taldeko David Clinger txirrindulari estatubatuarrak irabazi zuen Ordiziako Sari Nagusiko 77. aldia, esprintean, tropelari aurrea hartu zion zazpikote bateko azkarrena izanda.

Egunkaria euskaldunon 3.303. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai
Kontseilari Ordezkaria: Iñaki Uria
Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Gerentea: Mikel Sorozabal
Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222 Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com
Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com
Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1. ezker. 01005 Gasteiz Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965
Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45-13.esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686
Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 BilboTel.: 944104046 Faxa: 944103715 Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114
Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta kutxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Eragileek hausnartu beharrekoa

Olaia Kastresana donostiarraren heriotzak berriro ekarri du tragedia Euskal Herrira. Espainiako Mediterraneo kostaldean zela, esku artean zuen lehergailuak eztanda egin eta 22 urteko gazte baten bizitza lehertu da. Gertakari lazgarri horrek samina eragin du haren familian eta lagunengan, eta berriro ere heriotza horrek agerian utzi du Euskal Herrian premiazko zer konpondurik badagoela. Borroka armatua hasi zenetik gazte andana hil da Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo: herenegun Olaia Kastresana hil zen gisa berean, 1969ko Aberri Egunaren atarian EGIko bi militante hil ziren Ultzaman, esku arten zuten bonba lehertu eta gero. Geroztik, belaunaldiz belaunaldi, bide bera hautatzeko arrazoiak topatu dituzte hainbat eta hainbat gaztek, Kastresanak egin bezala. Francoren garaian bezalatsu, Aznarrenean ere euskal gatazkak konpondu gabe jarraitzen duela begi bistakoa da; beraz, nahitaezkoa da eragile guzti-guztiek, hausnartzeaz gain, proposamenak egitea Kastresana bezalako 22 urteko gazteek eta gazteak ez hiltzeko. Eragile politikoek ezin baitute adierazpen soil hutsetan gelditu tamainako tragediak ikusirik. Mugimenduak eskatzen ditu Euskal Herriko gizarteak, ausardia, herenegungoa bezalako gertakariek errotik astintzen baitituzte herritarrak. Azken finean, konponbide zuzena eskatzen dute.


Leherketa izan zeneko Torrevellako etxea.


Arma biologikoen inguruan Genevan egin bilkura.

Arma biologikoen akordioa, kolokan

Estatu Batuek 1972. urtean munduko hainbat estatuk –beraiek barne– sinatu zuten Arma Biologikoen Hitzarmena garatzeko akordioa sinatzeari uko egin zioten atzo Genevan. Washingtonen jarreraren ondorioz zapuzturik geratu dira azken sei urteotan nazioartekoan egindako negoziazioak. Arma bakteriologikoak debekatzeko akordioa sostengatzea beraien interesen kontra joatea litzatekeela esan dute EEBBek, «segurtasun nazionala eta informazio sekretua arriskuan jarriko lituzkeelako».

Reala, beste ilusio batekin

10.000 lagun inguru bildu ziren atzo Donostiako Anoeta zelaian Realari harrera egiteko, eta ez zen han joan den denboraldiko estuasunik, ia aurpegi guztiak iazko berberak diren arren, beste ilusio batekin daudelako taldea zein zaleak. Kvarme fitxaketa bakarra, eta Barkero, Gabilondo eta Alejandro harrobiaren erakusgarri. Azken horren aldeko pankartaren bat edo beste ere bai, aurtengoak beste freskotasun bat izan dezakeen seinale. Presidenteak esana, igandez igande irabaziz joan behar dela.

Askotariko kultur eskaintza Iruñean

Gaur hasi eta abuztuaren 5a bitartean era askotako eta jatorri ugariko kultur ekitaldiak izango dira Iruñean, Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan. Damaskoko Derviche dantzarien erritual antzeztua ikusteko aukera izango da gaur, eta dagoeneko sarrerak agortuta daude. Pentsatzekoa da hurrengo egunetako emanaldiek ere arrakasta izanen dutela. *Ekialdea hurbilago* du lelo nagusia aurtengo ekitaldiak; halaxe izango baitu egunotan Iruñeko kultur eskaintza hori aintzat hartzen duenak.